



JAGOBA MANTEROLA / FOKU

«Zinema elitistarekin ez gara identifikatzen; ihes egin nahi diogu»

Manuel Asin • Ikuspuntu jaialdiko zuzendari artistikoa

Hasi berri da Ikuspuntu zinema jaialdiaren XVI. edizioa, eta Manuel Asin zuzendari artistiko berriak baikor estreinatu du festibala. Ehun bat film izanen dira ikusgai Iruñerriko areto ugarian, larunbatera arte.

Yasmine Khris Iruñea

Iazko ekainean izendatu zuten Manuel Asin (Zaragoza, Espainia, 1978) Ikuspuntu Nafarroako Zinema Dokumentalaren Nazioarteko jaialdiko zuzendari artistiko berria, lehiaketa publiko bidez. Atzo eman zioten hasiera berak gidaturiko lehen edizioari eta jaialdiaren ibilbideko hamaseigarren aldian.

Asin gogotsu dago aurten elikatutako programazio zabalarekin: izan ere, ehun bat filma proiektatuko dira, eta espero du «jende anitz» joatea saioetara, «zinemazaleetatik harago».

Nola aurreikusten duzu lehen esperientzia zuzendari gisa?

Betidanik egon naizela prestatzen erranen nuke. Ikaste prozesua esperientziaren arabera neurtzen da, prozesu nahiko motela baita.

Ni neu egona naiz lanean antzeko bertzeko proiektu batzuetan, baina inoiz ez horrelako jaialdi batean, eta ezin naiz alaiago egon. Interes handia dut zinemari, kulturari, arteari eta sormenezko irudimenean. Jakin-minarekin aurreikusten dut, laburbilduz.

Aipatu duzu: proiektu anitzetan ibilia zara lanean. Zerk eraman zaizu Ikuspuntu jaialdiko zuzendari artistiko berria izatera?

Neurri batean, beti egon naiz harremanetan jaialdiarekin, lehenbiziko ediziotik. Ikusle gisa ere, lotura interesgarri bat ehundu nuen, dokumentalazalea bainaiz. Berehala, erreferentzia bihurtu zen jaialdia. Gogoan dut [Jorge] Oteizari buruzko pelikula bat ekoitzi nuela Oskar Alegriaren garaian, eta jaialdian programatu zutela. Bertzalde, Garbiñe Ortega azkeneko zuzendariak gonbidatu

ninduen film baten inguruko kritika-solasaldi batera, eta gustura hartu nuen parte. Azken finean, Ikuspuntu eremu pertsonal eta profesionallean kokatzen da nire bizitzan.

Ehun bat filma emango dituzte 60 saiotan. Zeintzuk dira edizio honetako erronka nagusiak?

Aurtengo eskaintza oso zabala da, eta, hain zuzen ere, hortxe dago koxka. Ikuspuntu jaialdia zorrotz samarra da proiektatzen diren filmekin, bilatzen baititugu proposamen berritzaileak, baina hausnarketa egin dugu honen inguruan. Argi dugu film hauek eta jaialdia bera denontzat nahi ditugula; izan ere, elitismo formatik ihes egitea gustatuko litzaiguke, horiekin ere ez baikara identifikatzen. Bilaketa estetiko eta irudimen lana sakonak izan arren film batean, badakigu mundu guztia

hunki dezakeela. Aurreko aldietan, sorpresa atseginak izan genituen, jaialdian inoiz etorri ez ziren pertsonak biltzen ikusirik. Zinemarekiko sentsibilitatea ez dutenei ere egiten diegu gonbita. Denok hausnarketa egin dezakegu proposamen hauekin, jaialdia aitzakia onena da biltzeko.

Bide batez, egitasmo berri bat jarri dugu martxan aurten, publiko gaztearengana ireki nahi dugunez: *Programatzaile gazteak x Ikuspuntu* izena du, eta Al Bao A

«Ortz muga berriak pentsatzeko orduan, irudimenak okupatzen duen espazioa beharrezkoa da»

Qu elkartarekin elkarlanean egin dugu. Praktikan, gazte talde bat hainbat astez elkartuko da, Mercedes Alvarez eta Arturo Redin zinemagile, programatzaile eta irakasleek proposatutako zenbait film ikusteko. Ondoren, film horiei buruz hitz egingen dute, eta bat aukeratuko dute jaialdian proiektatzeko, beraiek aurkeztuta. Horrez gain, birpentsatu egin behar dugu dokumental formatua. Gogoeta tresna berriak garatzen ari gara, mundu garaikidea azaltzeko.

Gaur egungo testuinguru sozio-ekonomiko delikatuari, non kokatzen da zinemaren rola?

Kontzientzia hartzeko ahalegina egitera derrigoritzen gaitu aktualitateak, zalantzarik gabe. Hausnortasunaz, gure gizartean gurutzen diren zailtasunez. Orain, gerla bat agerian dugunez, gure hausnarketa egin behar da puntu historiko batetik, baina,aldi beretan, etorkizunari begira. Filmeko zein artelanekiko harremanek lagundu diezagukete horretan. Ortz muga berriak pentsatzeko orduan, irudimenak okupatzen duen espazioa beharrezkoa da. Zinema dokumentalak hartzen du leku berezi bat, baldintzatzen gaituzten mugak gainditzeko bideak proiektatzea ahalbidetzen digulako. Gaur egun, muga horiek lotuta daude krisi eta gatazkekin. Irudimena, bere osotasunean, komunikatzeko modu bat da, belaunaldi artean, iraganeko onena urrunetik ateratzeko aukera ematen digu. Garaiak berriro ari badira ere, ondarea etorkizunarekin lotzeko tresna ederra da, eta hobetzeko baina ere.

Amaia Santesteban zuzendari nafarrak erran du «kulturalak dena hankaz gora jartzeko balio behar duela». Zer iritzi duzu?

Bai, ados nago. Kultura ausartu

behar da jasotzera eta bueltan proiektatzera. Akaso bertze esferetan konprometitua goako dauden mugak jorratzen ahal ditu.

Aurtengo programaziotik, baduzu film edo proiektio kuttunen bat?

Topaketa ibaian zikloa bereziki gustatzen zait. Munduko ibaia tiko bidaia bat da, eta Egiptoko Nilotik abiatuko da. Film luze eta laburrek osatuko dituzte sei emanaldi, kontinente ezberdinetatik igaroko gara. Solasaldiak ere antolatuko dira, deskubritzeko zerumuga ezezagunagoak.

Arga ibaitik ere pasatuko da?

Arga beratik dator zikloa! Ortzira bertan izanen da saloa, ibilaldi baten bidez. Onartu behar dut batzuetan zinemarekin bilatzen dugula urrutira joateko bidaia bat. Zenbait film ikusten ditugu eguneroko errealtatea aiantzi nahian, gure butakan egon arren. Eta, bat-batean, bizitzara itzultzen gara. Bortitz samarra da. Iruñean, hiria ibai horren bueltan artikulatzen da, eta egunero dugu ikusgai. Baina kasu honetan, hurbil dugun zerbitu hobeki ezagutzea dugu xede; ez dugu zertan bidaia luze bat egin.

Zer espero duzu aurtengo jaialdiatik?

Oraintxe bertan, nahi dut jendea etortzea. Jaialdi ireki eta irisgarri bat antolatzen saiatu gara, gutzientzako izanen dena. Espero dut izanen ditugun eztabaidak eta elkarrizketak nabarduraz eta kontrastez beteta gogoa, baina baita kohesioa aurkitzea ere munduarekin, geroz eta hobeki elkarrekin bizitzeko asmoz. Hori-xe dugu xede, bai testuinguru honetan, baina orokorrean ere bai.